

Joxe Mari Arregi Guridi

«Arantzazu dena da niretzat»

Ezustean eta aldi berean eskertuta irakurri nuen JAKINETIK idazteko animatuz jaso nuen mezua. Izan ere, ziur nago Joxeri buruzko idazki garrantzitsu eta oso interesgarri asko argitaratuko direla, eta nik ez nuen neure burua hor ikusten. Bestalde, hori horrela izanik, banuen aspalditik antsia bat bezalakoa: Joxek Arantzazurekin zuen lotura etenezina azaltzeko eta azpimarratzeko antsia, alegia.

Nik Joxe lehenengoz Foruko gure seminarioan ezagutu nuen 1964an, literatura irakasle zela. Egiari zor: ez naiz gehiegi gogoratzen gauza askoz, baina bat gelditu zitzaidan eta gogoan dut: bera Forura etorri zenean, eskolan batez ere, gaztetasun puntu bat sartu zuela. Gaztea zen, 23 urte zituen; alaia zen, irekia, eta gogoan dut poesia eta literatura asko maite zituela, eta gu ere poesia eta literatura estimatzen has gintezen saiatu zen.

Forutik Erromara joan zen Joxe, 1965ean, eta nik hurrengo gogoratzen dudana zera da: *Hitz berdeak* poesia liburua Arantzazun 1971n argitaratu zenekoa. Joxe Gandiagaren laguna zen, lagun mina, eta ni Gandiagaren ‘mekanografoa’; eta, beste lan askoren artean, Joxeren *Hitz berdeak* mekanografiatzen eta inprentako okerrak zuzentzen jardun nintzen. Gogoan ditut orduko, frankismo garaiko, zentsurari buruzko Joxe eta Gandiagaren arteko komentario xeble batzuk: Europari buruzko poema batzuk zentsurak kenarazi zituen, eta beste idazki batzuk, ustez gordinagoak eta ‘arriskitsuagoak’ zirenak, ez zituzten ukitu ere egin, eta horregatik Gandiaga eta Joxeren arteko komentario barreagarriak.

Bana nik Joxe gehiago eta gertuagotik azken urte hauetan ezagutu dut, Paulo Agirrebaltzategiren eskutik, Joxeren Donostiako etxera joaten ginenean eta han arratsalde ahaztezinak pasatu, hitz aspertu etengabeetan. Orduan batez ere konturatu nintzen Joxerentzat Arantzazu zer zen. Behin baino gehiagotan saiatu nintzen Joxerentzat Arantzazu

zer ote zen galdetzen, baina ez nuen inoiz grabazio egoki bat egitea lortu. Baina, neu ere temati, Joxeren bizitza azken astean zegoela jakin nuenean, ausardiaz Joxemari Sorsi eskatu nion graba ziezaiola haren-tzat Arantzazu zer zen. Eta hara hemen haren erantzuna, hil baino astebete lehenago grabatua:

Nolabait esateko, *Arantzazu dena da niretzat...* Ze, Ama Birjina da. Nire estudioak da, zaila zait hobeto esatea zer den Arantzazu, baina nik Euskal Herrian daukadan gauza sakratu errespetagarri bakarra Arantzazu da. Eta nire kasuan frantziskanismoa ere Arantzazu da niretzat. Eta gero gainera tokatu zait niri bizitzea eliza nola egiten zuten, Luzio Muñozek nola pintatzen zuen eta hori dena...

Izan ere, Joxe ume-umetan etorri zen Arantzazura, 1951n, eta 'ofizialki' 1990era arte izan zen Arantzazuko fraide; hori ofizialki, paperetan, baina egiaz eta benetan, bizitza osoan.

Bere heriotza ondorengoa ere aspalditik eta ondo kudeatu zuen. Bere errautesak Arantzazun utzi nahi izan zituen eta hala egin genuen, baina berak 'agindu' bezala: zaratarik gabe, diskrezio handienaz, ez omenaldi eta ez jendetzarik, ezta prentsarik ere, ez zuen nahi izan. Berak banan-banan izendatutako hamabi pertsona besterik ez ginen egon. Eta hemen geldituko dira betirako haren errautesak, «Euskal Herrian daukadan gauza sakratu errespetagarri bakarra den Arantzazu» honetan.

Badut oraindik beste desio-antsia bat, ezin ase izan dudana. Joxeren 'fedear' jardutekoa. Ateoa ez zela argi eta garbi utzi zigun berak. «Nik gehiegi sinesten dut», eta bera hiltzen zenerako «Arantzazun meza bat» eskatu zuen, besterik ez. Baina egiatan zer sinesten zuen Joxek? Eta zer ez?

«Arantzazu dena da niretzat», eta Joxe Arantzazuko frantziskotar eredugarri bezala bizi eta hil da: jakintsua, alaia, apala, soila, irekia, sakona, diskretua eta beti eta edonoren aurrean errespetu handienekoa. Egun handira arte, Joxe!